



PASAIKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA 2025eko MARTXOAREN 8rako

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA POR
EL 8 DE MARZO DE 2025

HAIEN SARETIK, GURE INDARRA

Martxoaren 8 honetan, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Pasaiako Udalak berdintasunarekin eta gure udalerriko emakumeen historia eta ondarea berreskuratzearekin duen konpromisoa berresten du. Badakigu oraindik asko dagoela egiteko haien ekarpena gizartearen esparru guztietan ikusarazteko, eta, bereziki, gure historian funtsezkoak izan diren emakume pasaitar asko ahanzturatik ateratzeko.

Zeregin horretan, **Pasaiako elkarte-sareak osatzen duen Berdintasun Mahaiak funtsezko** zeregina du baterako lanerako eta hausnarketarako gune gisa, eta gizarte justuago eta berdinzaleago baterantz aurrera egiteko ekimenak bultzatzen ditu. Horren adibide argia dira udalerriko hainbat eremutan margotzen ari diren muralak. Izan ere, mural horiek, kaleak edertzeaz gain, Pasaiako emakumeen genealogia berreskuratze eta balioesten dute, eta, sinbolikoki bada ere, hainbeste urtetan ukatu izan zaien espazio publikoa itzultzen die emakumeei.

Baina emakumeen memoria berreskuratzea ezin da murriztu soilik muraletara; espazio publikoak aitortza horren isla izan behar du. Horregatik, Pasaiako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen historia berreskuratzen jarraitzea, Berdintasun Mahaiarekin eta emakume artistekin batera, Pasaiako emakumeak protagonista diren bertako historiak islatzen dituzten proiektu berriak sortuz.

DE SUS REDES, NUESTRA FUERZA

En este 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, el Ayuntamiento de Pasaia reafirma su compromiso con la igualdad y con la recuperación de la historia y el legado de las mujeres de nuestro municipio. Sabemos que aún queda mucho por hacer para visibilizar su contribución en todos los ámbitos de la sociedad y, en especial, para rescatar del olvido a tantas pasaitarras que han sido fundamentales en nuestra historia.

En esta tarea, la Mesa de Igualdad de Pasaia, compuesta por el tejido asociativo de Pasaia, juega un papel clave como espacio de trabajo y reflexión conjunta, impulsando iniciativas que nos permiten avanzar en una sociedad más justa e igualitaria. Un claro ejemplo de ello es el proyecto de murales en distintas zonas del municipio, una acción que no solo embellece nuestras calles, sino que también recupera y pone en valor la genealogía de mujeres de Pasaia, devolviéndolas al espacio público que durante tanto tiempo les ha sido negado.

Pero la recuperación de la memoria de las mujeres no puede quedarse solo en los murales: el espacio público ha de ser ejemplo de este reconocimiento. Por todo ello, el ayuntamiento de Pasaia se compromete a:

- Seguir recuperando la historia de las mujeres co-creando junto a la Mesa de Igualdad y mujeres artistas nuevos proyectos de murales que enriquezcan y reconozcan las historias locales con protagonismo de las mujeres de Pasaia.

- Emakumeak gure espazio publikoan eta kaleetan presente egongo direla bermatzeko lanean jarraitzea, historian zehar izan duten ikusgarritasun eza zuzentzearen, eta kulturari, gizarteari eta Pasaiaiko bizitza komunitarioari egin dioten ekarpena aintzatestearen. Eta, horretarako, zenbait lan-lerro abiatzea:

- Sortuko diren espazio publiko berriei emakume izenak jarriko dizkiegu (2012ko abenduaren 19ko udalbatzarrean hartutako konpromisoari jarraikiz).

- Emakumeen duintasuna urra lezaketen edo euren izana ikusezin egin lezaketen egungo izendapenak ordeztuari ekingo diogu. Hots, emakume izenak ipintzea dagoeneko izendatuta dauden zenbait guneri, aipaturiko jarraibideen arabera.

- Berdintasun Sailak lanean jarraituko du hori bermatzeko espazioak eskaintzen: Jabekuntza Eskolaren bitartez kalean emakumeen jarduerak antolatuz.

- "Genero perspektibadun hirigintza" bultzatzen jarraituko dugu: argiteriaren bidez, egun dauden puntu ilunak ezabatu eta etorkizuneko obretan horiek ekidinez, espazio inklusiboagoak sortuko dituzten hiri-altzarien bidez, plazak ahalik eta goxoenak izan daitezen ziurtatuz...

- Herriko emakumeen hitza kontuan izaten jarraituko dugu. Euren partaidetza bultzatzen lanean jarraituko gara orain arte bezala eta Udalak prestatuko dituen batzarretan lekua emango zaie. Era berean, arreta berezia jartzen jarraituko dugu bakardadean bizi diren emakumeengan edota jatorri askotariko emakumeengan.

- Pasaiaiko neska gazteek mahai-gaineratzen dituzten kezka adi aztertuko ditugu eta erantzuna emango zaie Udalak dituen foroen bitartez. Esaterako, hezkuntza-gunearen, Eskubidean planaren edota aurrerantzean sor litezkeen foroen bidez.

- Seguir trabajando para garantizar la presencia de las mujeres en nuestro espacio público y en nuestras calles, para corregir la invisibilización histórica y reconocer su aportación a la cultura, la sociedad y la vida comunitaria de Pasaia. Y para ello, poner en marcha una serie de líneas de trabajo:

- Se asignarán nombres femeninos a los nuevos espacios públicos que se creen (según el compromiso adquirido en el pleno municipal del 19 de diciembre de 2012).

- Procederemos a sustituir las actuales denominaciones que pudieran vulnerar la dignidad de las mujeres o invisibilizar su condición. Es decir, poner asignar nombre femeninos a algunas zonas ya designadas siguiendo las pautas mencionadas.

- El Departamento de Igualdad va a seguir trabajando para ofrecer espacios que lo garanticen: A través de la Escuela de Empoderamiento organizando actividades de mujeres en la calle.

- Seguiremos impulsando el "Urbanismo con perspectiva de género", a través de la iluminación, eliminando los puntos oscuros existentes y evitándolos en futuras obras, mediante mobiliario urbano que genere espacios más inclusivos, asegurando que las plazas sean acogedoras...

- Seguiremos teniendo en cuenta la palabra de las mujeres del pueblo. Seguiremos fomentando su participación y dándoles su lugar cabida en las reuniones que organice el Ayuntamiento. Asimismo, seguiremos prestando especial atención a las mujeres que viven en soledad y/o de procedencia diversa.

- Atenderemos con atención a las inquietudes de las jóvenes de Pasaia, y daremos respuesta a las mismas, a través de los foros municipales. Por ejemplo, a través del foro de educación, el plan Eskubidean o los foros que se creen en el futuro.

- Pasaia Mugimendu Feminista bultzatzen eta horren bidelagun izaten jarraituko dugu. Gainera, bere jarduna egiteko beharrezko laguntza emango diogu. Lerrook probestu nahi ditugu bertan parte hartzen duten eragile eta emakumezko norbanakoek egiten duten lan itzela aintzatesteko.

Horregatik, Martxoaren 8 guztietan bezala, herritar guztiak animatu nahi ditugu Pasaia Mugimendu Feministak deitutako mobilizazioekin eta antolaturiko jarduerekin bat egin dezaten.

Pasaia Udaletik herri berdinzaleago baten aldeko konpromisoa berritu nahi dugu, atzoko eta gaurko emakumeek gure historian eta kaleetan dagokien lekua izan dezaten. Izan ere, emakumerik gabe ez dago historiarik. Emakumeak espazio publikoetan ez badaude, ez dago berdintasunik. Haiek ehundu zituzten sareetatik dator gure indarra. Jarrai dezagun aurrera.

- Seguiremos impulsando y acompañando al Movimiento Feminista de Pasaia. Además, le prestaremos la ayuda necesaria para el desarrollo de su actividad. Queremos aprovechar estas líneas para reconocer el inconmensurable trabajo que realizan los agentes y las mujeres que participan en dicho movimiento.

Por ello, este 8 de marzo, renovamos nuestro compromiso con un municipio más igualitario, donde las mujeres de ayer y de hoy ocupen el lugar que les corresponde en nuestra historia y en nuestras calles.

Así, como cada 8 de marzo, hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía para que participe en las numerosas iniciativas organizadas con y por el Movimiento Feminista de Pasaia.

Porque sin las mujeres, no hay historia. Sin su presencia en el espacio público, no hay igualdad. Porque es de las redes que tejieron desde donde proviene nuestra fuerza. Sigamos avanzando.

Pasaia, 2025eko martxoaren 8a